ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2025eko azaroaren 14a, ostirala • 130 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Dirulaguntza deialdia Gaubeako administrazio batzarrentzat, argiteria publikoak eragindako gastuak finantzatzeko

Udalbatzak, 2025eko urriaren 8an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea argiteria publikoa dela-eta egindako gastuak finantzatzeko Gaubeako administrazio batzarretarako dirulaguntza deialdia eta deialdi hori arautuko duten oinarriak. Horren gainean hartutako hirugarren erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2025eko azaroaren 6a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Argiteria publikoa dela-eta egindako gastuak finantzatzeko Gaubeako auzo eta administrazio batzarretarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

2024ko deialdia

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzen xedea da udalerriko herrietako argiteria publikoa dela-eta 2024an izandako gastuak ordaintzen laguntzea.

Bigarrena. Erakunde onuradunak

Gaubeako udalerriko administrazio batzarrek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, eskaera egitean abian den itzulketa edo zehapen prozedura orok bukatuta egon beharko du, baldin eta izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta abiarazi baditu prozedurok Gaubeako Udalak.

Hirugarrena. Onuradunek dirulaguntza edo laguntza lortzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko era

Ezinbestekoa izango da eskaera eta oinarri hauetan eskatutako gainerako agiriak adierazten den eran eta epean aurkeztea.

Laugarrena. Agiriak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da honako agiri hauek aurkeztea:

a) Eskaera, I. eranskineko inprimakiaren arabera.

b) Argiteria publikoagatik 2024an ordaindutako fakturen kopia osoa, edo fakturazioa dela-eta enpresa hornitzaileak emandako ziurtagiria(k), non fakturazio aldiak eta aldi horietako bakoitzaren zenbatekoa agertu beharko baitira.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ziurtagiriak aurkezten badira, gastuari buruzko ordainagiriaren kopia oso eta egiaztatu bat aurkeztu behar da, gutxienez.

Argindarrez hornitzen duten administrazio batzarrek kasuan kasuko herriek 2020an egindako argindar kontsumoaren fakturak aurkeztu behar dituzte, edo fakturazioa dela-eta enpresa hornitzaileak emandako ziurtagiriak, non fakturazio aldiak eta aldi horietako bakoitzaren zenbatekoa agertu beharko baitira; gainera, lehendakari-errejidoreak eta fede emaileak izenpetutak o ziurtagiria erantsi behar da, kasuan kasuko herriak argiteria publikoa dela-eta 2024an egindako kontsumoagatik ordaindutakoari buruzkoa.

Enpresa elektrikoaren ziurtagiriak aurkezten badira, gastuari buruzko ordainagiriaren kopia oso eta egiaztatu bat aurkeztu behar da, gutxienez.

c) Zinpeko adierazpena, helburu bererako beste diru sarrera publiko edo pribatu batzuk lortzeari buruzkoa. Gastua beste laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu bada, horien zenbatekoa eta jatorria egiaztatu beharko dira, II. eranskinaren arabera.

d) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutako egoeraren batean ez dagoela adierazten duen zinpeko adierazpena (III. eranskina).

e) Administrazio batzarraren lehendakari-errejidoreak eta fede emaileak sinatutako ziurtagiria, aurkezten diren fakturak ordaindu direla adierazten duena.

f) Erakunde eskatzailearen IFKren kopia.

Herri bat baino gehiago hartzen duten administrazio batzarrek herri bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute.

Bosgarrena. Aurkeztutako agirietako akatsen zuzenketa

Dirulaguntza eskaerak ez badira aurkezten behar bezala beteta eta oinarri hauetan eskatutako agiri guztiak eta osagarriak dituztela, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio akatsak zuzen ditzan edo falta diren agiriak aurkez ditzan 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean eta ohartaraziko zaio hala egin ezea n eskaeran atzera egin duela esan nahiko duela, horretarako ebazpena eman ondoren, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan, 68. artikuluarekin lotuta.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Dirulaguntza eskaera aurkezteko azken eguna abenduaren 31 izango da.

Agiri guztiak Gaubeako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira (Jesus Ginea arkitektoa kalea 46, 01426, Uribarri Gaubea), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutako eran.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onestea.

Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigortuek.

Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura eta irizpideak

Informazio Batzorde Orokorrak proposatuta, lehiaketa bidez emango ditu dirulaguntzak alkate-lehendakariak. Proposamen hori egiteko, batzordeak egokitzat jotzen duen aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango du.

Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

Administrazio batzarrek edo auzo onuradunek benetan egindako gastuaren arabera banatuko da urteko diru esleipen erabilgarria.

Zortzigarrena. Laguntzen muga orokorrak

Deialdi honetan araututako laguntzak ezetsi edo mugatu egin ahal izango dira, esleitutako hornidura gainditzen bada.

Eskaerek, guztira, udal aurrekontuan xedatutako diru hornidura gainditzen badute, Informazio Batzordeak banatuko du hornidura, 7.3 artikuluan jasotako irizpideen arabera.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, herri bakoitzak argiteria publikoa dela-eta benetan egindako gastuaren ehuneko 50 izango da. BEZa ez da diruz lagunduko.

Hamargarrena. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta horrek ez badu gehiegizko finantzaketarik sortzen. Halakorik gertatuz gero, hau da, jasotako laguntzen edo dirulaguntzen guztizko batura jarduerarako onesten den aurrekontua baino gehiago bada, gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, bakarrik zein beste batzuekin batera, entitate onuradunak egindako gastua baino handiagoa.

Hamaikagarrena. Ebazteko epea eta ebazpen ezaren ondorioak

Ebazpena emateko epea hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera.

Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat jo beharko da.

Hamabigarrena. Dirulaguntza justifikatzeko epea

2024ko ekitaldiari dagozkion gastuak direnez gero, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erakunde onuradunak egindako gastuak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

Hamahirugarrena. Onuradunak helburua bete duela eta emandako diruari eman zaion erabilera justifikatzeko era

Erakunde onuradunek dirulaguntza eskaera aurkeztean egiaztatu beharko dute diruz lagundutako gastuak ordaindu dituztela. Horretarako, 4.1.e) oinarrian aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Hamalaugarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Dagokion ebazpenak adierazten duen epean ordainduko da dirulaguntza, banku transferentzia eginda erakundeak eskaeran emandako kontu zenbakira.

Hamabosgarrena. Dirulaguntzaren aurrerakinak emateko aukera eta era eta, horrelakoetan, onuradunek aurkeztu beharreko bermeak

Ez dago aukerarik emandako dirulaguntzaren aurrerakinak jasotzeko.

Hamaseigarrena. Dirulaguntza ematea onesten duen ebazpena aldatzea eragin dezaketen egoerak

Dirulaguntza ematea onesten duen ebazpena aldatu egin ahal izango da, udalak gerora jakingo balu erakunde onuradunak helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza edo diru sarreraren bat jaso, eta ez zuela jakinarazi dirulaguntza eskatzean.

Hamazazpigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzaren zenbatekoak, beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarrera batzuekin batera, diruz lagundutako gastuaren kostua gainditzen badu, baliogabetu egingo da eta, hala dagokionean, soberakina itzuli beharko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamazortzigarrena. Dirua itzultzeko prozedura

Dirulaguntzaren baliogabetze eta itzultze prozedura izapidetzean, onuradunaren eskubidea bermatuko da entzuna izateko, bai eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztuz bere jarduna defendatzekoa ere.

Hemeretzigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten administrazio batzarrek betebehar hauek bete beharko dituzte:

— Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar egunetan onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu duela esan nahiko du.

— Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

— Gaubeako Udalaren Kontuhartzailetzari egiaztatze edo finantza kontroleko jarduerak egiten uztea.

— Gaubeako Udalari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo sarrerarik jaso den.

— Gaubeako Udalari egiaztatzea dirulaguntza emateko betekizunak eta baldintzak betetzen direla.

— Udalari eskatzen dituen agiriak ematea, eta emandako dirulaguntzaren inguruko eskakizun orori erantzutea.

— Gaubeako Udaleko Kontuhartzailetzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatutako informazio guztia ematea.

— Dirulaguntzen arazoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Udalaren dirulaguntzen ordenantzak ezarritakoak.

Hogeigarrena. Dirulaguntzetarako kreditua

Dirulaguntza hauek emateko, 30.000,00 euro erabiliko dira guztira, Gaubeako Udalaren 2024ko ekitaldirako 165.434000 partidatik.

Hogeita batgarrena. Informazioa eta aholkularitza

Gaubeako Udalak informazioa, laguntza, argibideak eta aholkuak emango dizkie deialdi honetan dirulaguntza eskaera aurkezten duten auzo eta administrazio batzarrei, hala eskatzen badute.

Hogeita bigarrena. Errekurtsoak

Erakunde interesdunek deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintza guztien aurka jo dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe eta eretan.

Hogeita hirugarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan arautu ez den edozertarako, hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra (2006ko urtarrilaren 27ko ALHAO, 11. zk.); Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, onesten duena Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Gaubeako Udalak ebatziko du.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. eranskina

Argiteria publikoak 2024an eragindako gastuak finantzatzeko dirulaguntza eskaera

……..jaunak/andreak,(NANa: ....., jakinarazpenetarako helbidea: .....), …… Administrazio Batzarreko erregidore-lehendakaria den aldetik (helbidea: .....; telefonoa: ……..……; Faxa..... e-maila.....

Adierazten du

.....herriak argiteria publikoa dela-eta 2024an izandako gastuak finantzatzeko Gaubeako administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko deialdia ikusita, eta deialdian bertan adierazitako oinarrien berri izanda,

Eskatzen du

gastu horiek finantzatzeko dirulaguntza eman diezaiotela. Horretarako, deialdiaren 4. oinarrian aipatutako agiriak aurkezten ditu.

Dirulaguntza emanez gero, ordezkatzen dudan erakundearen kontu zenbaki honetan sartzea:

Erakundea: .....

Kontu korronte edo libreta zenbakia: .....

Titularra: .....

NANa: .....

……., 2025eko ……..aren ……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

Gaubeako Udaleko alkate-lehendakariari.

II. eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik lortu ez bada)

.....jaunak/andreak, ... ko Administrazio Batzarreko erregidore-lehendakaria den aldetik,

hau adierazten du zinpean:

Ordezkatzen duen erakundeak ez duela inolako diru sarrera publiko edo pribaturik eskuratu..... herriak argiteria publikoa dela-eta 2022an izandako gastuak finantzatzeko.

……., 2025eko ……..aren ……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. eranskina

(Xede bererako bestelako sarrera batzuk lortu badira)

.....jaunak/andreak,..... ko Administrazio Batzarreko erregidore-lehendakaria den aldetik,

hau adierazten du zinpean:

ordezkatzen duen erakundeak.....ren (adierazi erakundea, organismoa edo bestelakoa) dirulaguntza jaso duela,….....eurokoa,.....herriak argiteria publikoa dela-eta 2024an izandako gastuak finantzatzeko.

……, 2025eko ……aren ……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

III. eranskina

Zinpeko adierazpena

.....jaunak/andreak,..... ko Administrazio Batzarreko erregidore-lehendakaria den aldetik,

Zinpean aitortzen du, argiteria publikoa dela-eta 2022an egindako gastuak finantzatzeko Gaubeako Udalak ematen dituen dirulaguntzen deialdiaren harira, ordezkatzen duen erakundea ez dagoela Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako inongo egoeratan.

Eta behar den tokian hala ager dadin sinatzen du.

……, 2025eko ……aren ……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.11.14 06:57:36 Z